

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Esperientzia honetan, hegaztiak izango dira gure gidariak. Prismatiko eta gidak hartuta, haien bizimodua, ohiturak eta Plaiaundi haientzat zergatik den hain garrantzitsua aztertuko dugu.

Hori gutxi ez balitz, eraztungile bihurtuko gara une batez espezie liluragarri hauek nola ikertzen eta zaintzen dituzten jakiteko. Eta auskalo! Agian, urrutiko lurretatik milaka kilometro egin dituen hegazti migratzaileren bat ikusteko zortea izango dugu.